



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2026ko otsailaren 3ko saioa

Bi mila eta hogeita sei urteko otsailaren hiruan arratseko zazpiak eta erdietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Ezin etorriak: CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, GOICOECHEA Iñaki

Ahalordeak: DACHAGUER Peio, LEKUMBERRY Xantxori.

Saioko idazkaria: PERUSANSENA Elodie

Deialdiaren data: 2026ko urtarrilaren 30aa

Afixatze data: 2026ko urtarrilaren 30a

1. ERABAKIA: ENPLEGATZAILEAK GIZARTE GERIZA OSAGARRIAN PARTE HARTZEA LABELIZAZIO PROZEDURA BATEN BAITAN *(4.1 nomenklatura)*

Auzapezak oroitarazi du Frantziako funtzio publikoaren kode nagusiak (L.827-4 L.827-12 artikuluen artean) enplegatzailerik publikoek (Estatua, tokiko erakundeak, ospitaleak,...) aukera emate diela beren langileentzako gizarte gerizako osasun eta/edo aurreikuspen bermeetan diruz parte hartzeko.

Parte hartzeko baldintzak dekretu bidez zehaztu dira:

- 2011ko azaroaren 8ko 2011-1474 dekretuak, lurralde erakundeek eta haien egitura publikoek beren langileen gizarte geriza osagarrian diruz parte hartzeari buruzkoa, lurraldeko enplegatuei irekiak zaizkien aukerak zehazten dituena;
- 2022ko apirilaren 20ko 2022-581 dekretua, gizarte geriza osagarriaren bermeei buruzkoa eta lurralde erakunde eta haien egitura publikoek geriza horren finantzazioan parte hartzeari buruzkoa

Lurralde enplegatzailerik baten parte hartzearen onurak soilik erreserbatuak zaizkie langile hartzaileen belaunaldi arteko elkartasuna bermatzen duten kontratu eta araudiei.

Hori dela-eta, lurralde erakundeek aseguratzen den arrisku bakoitzeko honakoak egin ditzakete:

- Aurretik labelizatu den kontratu edo araudi batean izena eman duten langileak laguntzea;

Kontratu eta araudi labeldunak 2012ko agorrilaren 31an argitaratu ziren Lurralde Erakundeen Zuzendaritza Orokorraren webgunean.

- Edo, lehiaketa deialdi bat abia dezakete, zeinaren ondotik parte hartze hitzarmen bat izenpetuko baitute operadore bakarrarekin.

Auzapezak proposatu du herriak gizarte geriza osagarriko bermeen finantzazioan parte hartzeko printzipioa, honako baldintzetan:

Herri arteko Batzorde Teknikoak, 2012ko uztailaren 3ko eta 2012ko urriaren 9ko saioetan aldeko iritzia eman zuen osasun eta aurreikuspen arloetan labelizazio urraspideentzat.

Organo erabakitzaileari dagokio honako puntuez erabakitzea:

- Parte hartze baten ezartzea eta bermatuko diren arriskuen hautatzea
- Parte hartzearen onuradun izanen diren kontratu eta araudiaren hautatzeko prozedura
- Langile onuradunak
- Parte hartzearen zenbatekoa eta, hala balitz, modulazio irizpideak,
- Parte hartzearen emateko baldintzak

PARTE HARTZE BATEN EZARTZEA ETA ARRISKUAREN HAUTATZEA

Auzapezak oroitarazi du aurreikuspen arriskuko gizarte geriza osagarriarentzat enplegatzaileak hilabetero eta langile bakoitzeko 15 euroan parte hartuko duela, harpidetzaren zenbateko osoaren mugaren baitan, 2014ko urtarrilaren 6ko Herri Biltzarrean erabaki bezala.

Herriko Etxeak erabaki du langileen gizarte geriza osagarriaren bermeak finantzatzeko parte hartze baten ezartzea 2026ko urtarrilaren 1etik goiti:

- osasunaren arloan (osotasun fisikoari kalteak eta amatasuna)

PARTE HARTZEAREN ONURADUN IZANEN DIREN KONTRATU ETA ARAUDIEN HAUTATZEKO PROZEDURA

Herriko Etxeak erabaki du bere parte hartzea Lurralde Erakundeen Zuzendaritza Orokorraren webgunean zerrendatuak diren kontratu eta araudi labeldunetako arriskuentzat ematea.

PARTE HARTZEAREN LANGILE ONURADUNAK

Gizarte gerizaren onuradun izanen dira:

- Funtzionario ikastun eta titularrak,
- Zuzenbide publikoko kontratupekoak, zein izan ere beren kontratatzeke arrazoia,
- Zuzenbide pribatuko langileak eta apendizak.

Langileak parte hartze horren onuradun izan daitezke, zein izan ere beren lan denbora.

PARTE HARTZEAREN ZENBATEKOA

Osasun arriskuarentzat, hilabetero eta langile bakoitzeko 15 euroan parte hartuko du enplegatzaileak, harpidetzaren zenbateko osoaren mugaren baitan.

PARTE HARTZEA EMATEKO BALDINTZAK

Herriaren parte hartzea honela emanen da:

- Langileari zuzenena bere soldatarekin batera,

Organo erabakitzaileak:

2012ko uztailaren 3ko eta urriaren 9ko Herri arteko Batzorde Teknikoaren iritzian oinarriturik, 2025eko abenduaren 11ko Herri arteko Lurraldeko Gizarte Batzordearen iritzia ondotik, parte hartzearen emateko moduari buruzkoa,

Biltzarrak deliberaturik:

- **ERABAKI DU**, Auzapezak egin proposamenak onartzea.
- **ZEHAZTU DU**, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

Jardunean diren kideak: 15

Presente zirenak: 12

Adierazi diren bozkek: 13 (12 presente eta ahalorde 1)

ALDE: 13

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2026ko otsailaren 3a
Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2026ko otsailaren 5ean argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.